

# Kultur agenda

Abenduak 5 ostirala  
Abenduak 14 igandeak

## Diego 'El Cigala' Kursaalean

Belaunaldi berriko flamenko kantari finenetakoa da Diego 'El Cigala'. Usadioari uko egin gabe, flamenkoaren esparruan bide berriak zabaltzea atsegin duen kantaria. Aurten Donostiako Jazzaldian izan



da Bebo Valdes piano jotzaile kubatarrarekin "Lagrimas negras" diskoa aurkezten. Oraingoan, ordea, Diego 'El Morao' gitarra jotzailearekin datorkigu. Ostiral honetan, hilak 5, kontzertu erakargarria eskainiko du Kursaaleko Ganbara aretoan, 20.00etan.

## Rafa Rueda eta Dinbi Danba Aitzan

Rafa Rueda musikariak bakarkako estreinako lana aurkeztuko du larunbatean, hilak 13, Aitza kultur etxean (Larratxo pasealekua 55), 21.00etan. PILT taldeko abeslaria sustraletara, Broken Bihotz pop-rock taldearen sasoiako melodietara, itzuli da disko



honekin. Dinbi Danba musika talde donostiarra ere ikusi ahal izango dugu kontzertuan.

## Kiev-eko Operako Ballet Nazionala



Kiev-eko Operako Ballet Nazionalak dantza ikuski-zun iradokitzailea eskainiko du asteartean, hilak 9, Kursaaleko Auditorioan, 20.00etan. Munduko dantza konpainia entzutetsuenetakoa dugu Kiev-eko Operako Ballet Nazionala, eta "Zisneen lakua" eta "Sherezade" pieza klasikoekin datorkigu Donostia-  
ra. Tatiana Beletskaya, Maksim Chepik eta beste hainbat dantzari ukrainiar handiren artearekin gozatzeko parada ezin hobea.

## Gospela gabonen atarian

Gospel musikak berotuko du aurten ere negu hotza, Kursaaleko Auditorioan. Bobby Jones & The New Life Singers ostiralean ariko dira, abenduak 12, 20.00etan. Eta Children of Israel Mass Choir, larunbatean, abenduak 13. Aipatutako bi egunetan Kursaaleko Batzar Aretoan antolatutako afariak ere gospel doinuz zipritinduko ditu Northern Kentucky Brotherhood Singers taldeak. Igandean, abenduak 14, Angela Spivey & The Voices of Victory Choir ariko dira Kursaalean, 18.30ean eta 21.00etan.

